

Larrabetzuko udalaren aldizkaria

7. zenbakia, 2016ko negua.

www.larrabetzu.eus

bizi LARRABETZU

Urte berri on!



BIZKARGI DANTZA TALDEA

DANTZATZEN DUEN HERRIA EZ DA INOIZ HILKO



Ia nahi gabe sortu zen Bizkargi dantza elkarteak. Ez zuten ideia hori hasiera batean behintzat. Paradoxikoa dirudien arren, euskal dantzen inguruan sortzen den genero bereizketa izan zen sorrera horren oinarria. Eskolako haur eta gazteen dantza eskolak ematen zituen Jone Jauregi herritarra, Larrabetzuko eskolan. Eta hamabi urte bitarteko neskak ziren gazte talde horretan gehienak. Bien bitartean, metro gutxira, mutilak euskal dantzetara erakartzeko eskolak ematen

ziharduen Aitor Santxo herrikidea Hori Bain, Bizkargi izenaren pean. Talde biak elkarrekin zerbait egiteko gogoak elkartu zituen mahai beraren bueltan Jone eta Aitor. Eta hainbat bilera eta proposamenen artean erabaki zuten denak elkartu eta elkarte bakarra sortzea; gaur egun Bizkargi dantza elkarteak dena, alegia. Esperimentu gisa elkartu, eta gaur gaurkoz 100 herrikide dira dantza taldeko partaide. Eta 190 bazkide ditu elkarteak.

ANIZTASUNA

Aniztasuna da Bizkargi elkartearen marka. Hala uste du Jonek. “Nagusienak 65 urte inguru ditu eta sei, aldiz, gazteenak”. 100 pertsonako taldea kudeatu eta denei dantzak irakastea lan nekeza da, ordea. Lau taldetan banatzen dituzte horregatik: txikiak, ertainak, hasi berriak eta nagusiak. Eta nagusien taldean emakumeen dantzak, gizonenak eta mixtoak ikasteko entseguak egiten dituzte. Jone bera, Ane Baraiazarra, Mireia Artabe eta Aitor Santxo aritzen dira irakasle lanetan. “Irakasle batekiko dependentsia eduki baino, nahiago genuen lana banatu”. Denak kide, eta denak denen irakasle. Berezia da Bizkargi elkarteak lortzen duena. Haurrei eskolak ematen, dantza elkarteko gazteak ere aritzen dira. Eta belaunaldien arteko kate bat sortzen dute horrela. Belaunaldi batek, beste bati, eta harek, besteari. Eta, nola ez, elkartu eta denak elkarrekin aritzeko gero.



HARRERA ONA

Herrian harrera ona izan du dantza elkarteak. Orain arte izan den hutsune baten ondoriozkoa dela uste du Jonek. "Eskola utzi ondoren, herritarrek ez zuten dantzan jarraitzeko aukerarik eta Bizkargirekin bete da hutsune hori". Edonola ere, muga asko dituzte orain ere. "Mutil asko dago taldean eta harresi asko hautsi ditugu. Baina oraindik ere 30 urtetik beherakoak erakartzeko zailtasunak ditugu". Eskolara joan ziren iaz Bizkargikoak saio bat egitera. "Eskolara joan ginen bost urteko haurrei erakusteko zer egiten dugun elkartean, eta nortzuk elkartzen garen. Neska eta multil talde bat elkartu eta hainbat dantza egin genituen ikasleekin". Emaitza izan zuen ordukoak. Izan ere, aurtengo ikasturtean eskolako neska eta mutil asko gerturatu baita taldera. "Hasi berriak gara, eta ziur naiz, oraindik ere harresi gehiago apurtuko ditugula".

KIROLA, DANTZA ETA EUSKARA

Kirola, dantza eta euskara elkartzen duen jarduera dantza Joneren arabera, eta hainbeste lagun elkartzeak herritarren arteko sareak indartzen dituela uste du. "Herritarrek euskal kultura lantzeko eta musikaz gozatzeko aukera dute elkartean, baita, euskaraz egiteko ere. Baina argi du Jonek azken helburua zen den: ondo pasatzea."Gure helburua ez da plazetan dantza egitea, gure helburua ondo pasatzea da eta dantzaz gozatzea". Astean, sei orduko entseguak egiten dituzte: astearte eta ostegunetan, 19:30etatik 21:00etara. Eta sei batzordekideren artean koordinatzen dute dena. Esan gabe doa, Bizkargi elkartean biltzen direnak, boluntario lana egiten dutela. Elkarlan horren adierazle dira dantza elkartean erabiltzen dituzten jantziak ere. Taldekideek beraiek jositakoak dira; eta hainbat herritarren laguntza izan dute lan horretan.

MUSIKARIEI DEIA

Sortu zenetik bi urte pasa diren arren, ez dira geldi egotekoak Bizkargi elkartekoak. Eta hainbat dantzaldi egin dituzte jada herrian. Portugaleten ere egin dute dantza erakustaldia. Eta Kepa Junkeraren azken lanaren bideoklipean ere agertzen dira herriko dantzariak. Erronka berria dute aurrez aurre orain. Izan ere, abenduaren 29an eta 30ean Korrontzi taldeare

kin egingo dute dantza, Azpeitian lehenik eta Bilbon gero. Baina ez dira hor bukatzen elkartearen asmoak. Euskal Herriko lurraldeen arteko harremanetan ere egin nahi dute indar Jonek azaldu duenez, eta maskaradako dantzak ikasteko Ipar Euskal Herriko dantzariak etorriko dira Larrabetzura. Dantzariak sobera dituzte elkartean, baina gehiago ere bildu nahi dituzte. Eta musikariak taldera gehitzeko deia ere egin du Jonek. Herriko musikariak ere dantza elkarteko kide izatea nahi dute Bizkargikoek. "Larrabetzun musikari asko dago, eta euskal musika sortzeko beharrian hori ere badugu. Egiten ditugun saio guztietan herriko musikariekin aritzeko".

HAUR, HELDU, GAZTE, ANDRE ZEIN MUTIKO

Haur, heldu eta gazte; andre zein mutiko. Dantzak elkartu ditu Larrabetzun, eta oraindik ere dantza asko dute egiteko, eta plaza asko dituzte zapaltzeko. Ateak zabalik dituzte beti. Beraingana hurbiltzea besterik ez dago taldera sartu eta entseatzeko hasteko. Herriko plazan, dantzan aritu direnean, herritar gehienek sentituko zuten dantzan hasteko gogo txiki bat barrenean. Arritmikoa izatea ez da aitzakia oinak mugitu eta besoak altxatzeko. Irakasleak ez dira falta, eta irakasteko gogoak ere ez. Herriko elkarte gutxik lortu duena egin du Bizkargik. Dantza plazara ekarri du berriz. Eta belaunaldiz belaunaldi errotzen ari dira hori. Etorkizuna du Larrabetzuko plazak, hortaz.

